



Malloe buruzko liburu atera du Juan Mari Ansak

"Las Malloas de Aralar" 500 orrialdeko liburu mardula argitaratu du Juan Mari Ansak: batetik, Malloetako 17 mendi ibilbide bere mapa, toponimia eta argazkiekin, eta inguruko 25 istorio edo kontakizun ere bai bestetik. Aralarren artzainek denbora pasatzeko altxatzen zituzten harriak Luis Mari eta Urtzi Telleriak probatu zituzten Ansak eskatuta. /4-5 ORRIALDEAK

PSE-EEK Jesus Zaballo aurkeztu du alkategai

Udal hauteskundeak maiatzaren 22an dira eta alderdiak zerrendak eta hautagaiak aurkezteko garaia iritsi da.

Gipuzkoako PSE-EEK ostiralean, urtarrilaren 14an, Lasarte-Oriako alkatezarako bere hautagaia aurkeztu zuen, Jesus Zaballo.

Goiegi jatetxeko jangela herriko alderdi sozialistako zinegotzi, zale eta herritarrez bete zen eta hauetaz gain, Gipuzkoako PSE-EEKo hainbat ordezkari ere egon ziren, hala nola, Iñaki Arriola, Rafaela Romero, Ernesto Gasco eta Jesus Eguiguren.

Gaztea eta lanerako gogoia

Iñaki Arriola Gipuzkoako PSE-EEKo idazkaria izan zen Jesus Zaballoen aurkezpena egin zuena eta Zaballo alkategaiaren gaztetasuna eta lan egiteko gogoak azpimarratu zituen.

Lasarte-Oriaren garapena ere izan zuen hizpide eta Udalak ematen dituen pausoei buruz ere aritu zen, esate baterako, jangela eta haur eskolaren erantzukizuna Eusko Jaurlaritzak hartzea.

Eta azkenik, udalbatzarran onartu zen Oriainoko trenbidearen azterketa egingo dela ziurtatu zuen Arriolak.

Guztien alkate izan

Alkate izendatutako egunean, "guztien alkate izango naiz" esan eta hori egiten saiatu dela adierazi zuen Zaballosek, lehengo aldiz zerrenda buru joateko ohorea ere goraipatu zuen.

"Herritar bat gehiago izan, Lasarte-Oriako hainbat elkarteetan parte hartu eta herritarrek ezagutu, hori dut helburu". Herritarrek merezi dutena eta behar dutena jakin eta horretan lan egiteko konpromisoa azaldu zuen.



Jesus Zaballo Lasarte-Oriako PSE-ko hautagaia izango da maiatzeko hauteskunderetan

Herritarrekin hizketan jarraituko duela eta Lasarte-Oriako dagokion lekua eskuratzeko saiatuko dela adierazi zuen. "Herritarrek herria bizi eta gozatu behar dute".

Alkate izan behar zela adierazi zuen, bi arrazoiengatik gainera, ilusioa eta lan egiteko gogoia duelako.

Sozialistak haizea eta jendeari putz egitea eskatu zioten, horrela maiatzeko hauteskunderetan herriaren dizdira argi eta garbi ikusi ahal izateko.

Mus txapelketa borrokatua jokatu zen Xirimirin

Larunbatean, urtarrilaren 15ean Xirimiri Elkartearen Euskal Herriko Mus Txapelketaren barruan, Lasarte-Oriako kanporaketa jokatu zen.

Arratsaldeko 16:00ak aldera eman zitzaion hasiera txapelketari eta bertan 10 bikotek hartu zuten parte aurtengo kanporaketan.

Final lehiatua

Lau erregetara jokaturako Txapelketa borrokatua izan zen. Azkenean, finalean Gari eta Aritz, Iñigo eta Imanolen kon-

tra jokatu zuten. Arazo handirik gabe, zortea barne noski, Aritz eta Gari erraz garaitu zituzten aurkariak. 20ko lau partidetan lortu zuen garaipena bikote irabazleak, eta honi esker Gipuzkoako kanporaketara joango dira.

Afaria ere sari

Gipuzkoako finalerako pasea lortzeaz gain, Lasarte-Oriako txapelkunak izateagatik ere saria eskuratu zuen bikoteak, Goiegi jatetxeko afari eder bat. Zorionak bikote eta zorte on Gipuzkoako kanporaketan! •



Finalera iritsi ziren bikoteak eta beste partaide batzuk ditugu iruditzen.

KIROLA/2

Futbol jokalaririk profesionalizatetik, entrenatzaileira

UDALA/3

Emakumeen kirola sustatzeko hitzarmenak

ALBISTEA/6

Zero Sette akordeo orkestrak 24 urte bete ditu



GURUTZETA SAGARDOTEGIA

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATUREALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



Javier Olaizola Futbol profesionaleko jokalaria ohia

“Mallorcan bizitzea bikaina izan zen”

Mallorca futbol taldean, lehenengo mailan, 9 urtez jokalaria bezala aritu zen Javier Olaizola

Michelin futbol taldean hasi zen Javier Olaizola herri-terra futbolean. Añorgatik pasa bazen ere, bere gaztaroa hemen pasa zuen eta futbolari bezala ere Lasarte-Orian osatu zen. Baina ospea eta bere bizitza profesionaleko urte goraiatuena Mallorcan futbol taldean eskuratu zituen. 9 urtez jokatu zuen talde balearrean, eta taldearen ikur bilakatuta ikusi genuen.

Itxaso MORENO

Lasarte-Orian jaio zen 1969an Javier Olaizola. Herrian futbolari bezala hezi ondoren, garaiko Michelin futbol taldean, Eibarrera, Tolosara, Burgosera eta azkenean Mallorcara joan zen bertan futbolari profesionaleko bizitza bukatuz. Egun, Ostadar K.F. dago futbol eskolako entrenatzaile gisa.

Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen?

Michelin taldean hasi nintzeanean, existitzen zenean. Alebinetan Añorgan egon nintzen, baina infantiletatik jubenilak bitartean herrian jokatu nuen. 18 urterekin soldaduska egin behar izan nuen, eta urte betez geldirik egon nintzen. Izan ere, soldaduskan zegoen agintari batek ez zidan Mirandesekin entrenatzeraz joaten utzi.

Eta soldaduska eta gero?

Zerbitzu militarra amaitu nuenean Tolosan egon nintzen eta gero Eibarren. Bertatik, lehenengo mailan zegoen Burgos taldera joan nintzen, baina arazo ekonomiko handiak zituen eta berriro Eibarera bueltatu nintzen. 95-96 denboraldian Mallorcan fitxatu ninduen eta hara joan nintzen. 9 urtez jardun dut bertan futbolari, lehenengo mailan, 2003-2004 denboraldian erretiratu nintzen arte.

Futbolari profesionalaren bizitza amaitu eta zer...

Bizitza erabat aldatu zitzaidan, gainera lesionatuta bukatu nuen. Egoera oso gogorra da. Ohituta zaude ordutegi finko batera. Asteburuetan kanpoan jokatzen baduzu bidaiatu behar duzu, eta etxean jokatuta ere kontzentratu zaude. Ohitura estriktoak daude futbolari profesional batentzako.

Nola planteatu zenuen bizitza hortik aurrera?

24 ordu pentsatzeko, obliga-

zio gabekoak nituen, baina zorionez zorzea izan nuen eta futbolari bezala amaitu eta berehala bertako telebista lokal batek kolaboratzaile gisa jardutea eskaini zidan. Hala ere, bizitza aldaketa izugarria izan zen, ordutegi apurtuak baitaude.

Momentu zailak dira futbolari batentzako, zure disziplina eratu behar duzu. Obligazioak eratu behar dituzu. Herrira bueltatu nintzeanean, nire seme-alabak egunero eskolara eramateko erabakia hartu nuen, horrela, altxatzera behartuz.

Nolakoa da lehenengo mailako jokalaria baten bizitza?

Lehenik eta behin gizaki arruntak gara, baina bizipen espezialekin. Bizitza profesionala markatzen du zure egunerokotasuna, diru asko dago barnetik eta hori beti buruan duzu.

Ekonomikoki pribilegio batzuk dituzu, baina kontraz zure bizitza mugatuta duzu.

Futbolari heldutasun maila lehenengo iristen zaio?

Bai, eragile askorengatik. Gaztaroa murrizten da eta lehenago heltzen zara. Esate batera diru asko irabazten hasten zaren neurrian, pertsonalitate definitu bat ez baldin badaukazu okertu egin zaitezke, eta hori kirolari askorengan eragina izan duen fenomenoa izan da.

Nola izan zen Mallorcan bizitzea?

Bertan 9 urte egon nintzen jokalaria profesional bezala eta ia beste 4 bestelako lanak egiten. Nire bizitza han ikaragarria izan da. Hiri zoragarria da Palma de Mallorca, gainera Mallorca taldean ni egon nintzen urte horietan urte zorionekoak izan ziren. Champions-a jokatu genuen, Europako Kopa, Superkopako garaileak izan ginen... Jarraitzaile askok idolatratu egin gintuzten. Jende guztiari gomendatzen diot Mallorcan.



Mallorca taldeko futbolari profesiona izan zen Javier Olaizola. Garaipen ugari eta onespenez handia lortu zuen.

Futbolari profesional bezala amaitu duzu, baina zure bizitza futbol munduan ikusten duzu?

Lagunak izan ditut futbolean aritu eta ikasteko kapazak izan direnak, sakrifizio handia egin zutenak, baina nik B.B.B-ko (Balioanizdun Batxilergo Bateratua) hirugarren maila arte ikasi nuen, gero utzi egin nuen. Beraz, bizitza guztia daramat futbol munduan eta bertan jarraitzea gustatuko litzaidake.

Entrenatzaile titulua ere ateratu duzu, ez?

2005eko ekainean 8 urtez futbolari profesional bezala aritutakoei, 5 aldiz internazional absolutuak izandakoei eta txapelidun olinpikoei entrenatzaile izateko kurtsoa egiteko aukera eman ziguten. Eta proiektu horretan murgildu nintzen.

Guardiola, Luis Enrique, Alkorta, Julio Salinas... izan ziren nirekin batera titulua ateratu zuten beste jokalaria ohia adibidez.

Ostadarrekoaz gain beste talderen bat entrenatu duzu?

Bai. Titulua ateratu eta Mallorcan deitu zidan azpiko kate-

gorietan entrenatzaile gisa aritzeko, urte bete egon nintzen. Eta ondoren futbol base guztiaren koordinatzaile izan nintzen Lasarte-Oriara bueltatu arte.

Eta zergatik bueltatu zinen Lasarte-Oriara?

Mallorcan nire bizitza profesionala nuen, baina hemen herrian bizitza pertsonala. Nire bi seme-alaba hemen bizi dira, eta ez nuen bere heziketa galdu nahi. Bizitza profesional eta pertsonalaren artean erabaki behar izan nuen, eta aita izatea erabaki nuen.

Hona etorri eta zertan aritu zinen? Nola sartu zinen Ostadarren?

Hona iritsi eta Antiguoko taldeko entrenatzaile izan nintzen, ondoren Realean Badiola zegoen garaian urte bete egon nintzen entrenatzaile gisa.

Nire semea Ostadarren hasi zen jolasten, eta niri laguntza eskatu zidaten kirol taldeak, eta ez nuen dudarik izan, proiektuan barneratu nintzen.

Lasarte-Oriako futbol basean

zaudela nola ikusten dituzu generazio berriak?

Gure generazioa eta egungoa ez dauka zerikusirik. Egungo gazteak bizitza geldikorra ohituta daude; ordenagailuak, kontsola... eta gu katean ibiltzen ginen futbolean, edozertan jokatzen. Hezkuntza moldeak aldatu dira. Lehen gurusoak ez ziren hain babesleak, bizitzak berak gauzak erakusten zizkigun.

Baina honen harira nik uste dut Ostadar K.F. lan ikaragarria egiten dabilela kirol mundua herrian ezartzeko. Harrituta nago eta atsegin handiz esaten dut, Ostadarren bilakaera ikusita. Herri hau kirolarekiko zuen ilusioa berpiztu dute, eta kirol ugari jarri dituzte martxan.

Ume asko daude kirola praktikatzen eta pozten nau.

Zerbait geratu zaizu egiteko futbolari profesional bezala?

Gipuzkoarra naizen heinean Realean jokatzea zen nire ilusioa, baina ezin izan zen ilusio hori egi bihurtu. Eskaintzak egin zizkidaten, baina azkenean Mallorcan geratu nintzen. Eta erabaki hori ez nuke aldatuko, gauza asko lortu ditut Mallorcan. •

Amiantoa kontrolpean izatea

Ezker Batuaren mozioa babestu zuten udalbatzarreko alderdiek

Ezker Batuak Udalerrian instalaturiko amiantoaren inbentario bat egin eta hondakinak era egokian kudea zitezen eskatzeko mozioa egin zuten ostegunean burutu zen udalbatzarrean eta momentu horretan zeuden alderdien babesa izan zuten proposamenak. Izan ere, PPko zinegotziak gai pertsonalengatik udalbatzara utzi behar izan zuten.

Inbentarioa

Honen bitartez, herritarren, langileen eta ingurumenaren babesa bermatu nahi da.

Honela, Udalak Eusko Jaurlaritzari herriko udal azpiegituretan, ur-sarean, teilatuetan, industria guneean edo base-rietan egon daitekeen amiantoa aurkitzeko azterketa eta honen identifikazioa egitea eskatzen du.

Era berean, Udalak Prebentzio Zerbitzuari eta OSALANI amiantoarekin lan egin eta horregatik ondorioak izan zitzaizkeen udaleko langile edo azpikontratan izenak emango dizkie, hauen osasunaren zaintza bermatzeko.

Honetaz gain, Udalak amiantoa duten instalazioen mantentze eta konpontze lanak indarrean dagoen araudia jarraituz egingo ditu.

Eta udal zerbitzuek jazarpena egingo dute herrian dauden amianto kentze ilegal edo hon-



Herrian dagoen amiantoaren inbentarioa eta honen kudeaketa egokia egingo da.

dakinen kontrol gabeko botatzeak antzemateko.

Eranskina

Mozio horri Ezker Abertzaleko zinegotziek, lau puntu erantsi zizkioten langileen osasunari dagokionari.

Honela, Udalak amiantoarekin zer ikusia izan duten langileei osasun azterketak egingo dizkie.

Bestalde, zaintza protokoloa aurrera eramango da langile hauekin eta osasunaren zaintzaren jarraipena egingo da.

Azkenik, langileei laguntza juridikoa emango zaie, auzitara joaten badira.

Gai honen harira, Gobernu taldeak herrian dagoeneko udal instalazioen inbentario bat eginga zegoela eta Ozta-

rango ikastetxean bakarrik geratzen dela jakin arazi zuen. "Amiantoa arazo larria da eta udalak serio lan egin du herrian egon ez dadin," azaldu zuen Iñaki Mugikak.

Ezker Abertzaleak langile horiek gizarte segurantzarekin borroka handia dutela salatu zuen eta amiantoaren ondorioak gaixotasun profesionala izateko indarra egin behar dela azpimarratu zuen.

Hiribusa eta BOEak

Gai honetaz gain, ostegunean galderak eta eskaerak egiteko aukera izan zuten alderdiek.

Alkateak Ezker Abertzaleak, EB, LOHP eta EAJK egindako galderei erantzun eta LOHPak Hipodromo Etorbide eta Gelto-ki kaleko bidegurutzean sor-

tzen diren trafiko arazoek kexa aintzat hartu zuen.

Honela, hiribusaren esperimentzia positiboa dela eta bukatzean, honen jarraipena erabakitzeko auzo-elkarteekin bilduko direla jakin arazi zuen.

Bestetik, Donostialdeko RPTari buruz emendakin bakarra dagoela jakin arazi zuen eta teknikoekin bildu eta Udalak emendakina egingo zuela ere aditzera eman zuen.

Honetaz gain, Babes Ofizialeko Etxebizitzen hurrengo zozketa Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren prezioak onartzen ez zituelako atzeratu dela jakin arazi zuen.

Azkenik, alderdiek plan ekonomikoaren zirriborroa dutela eta hori onartu osten, 2011 urteko aurrekontuak aurkeztuko direla ere aipatu zuen.

Somoto Batzardea

Bestalde, Ezker Abertzaleko zinegotziek Somotoko batzardeko lehendakaria haiengana-ko duen jarrera partziala salatu zuten eta "ez ditu gure proposamenak aintzat hartzen" adierazi zuten. Hainbat alderdi bat etorri ziren horrekin eta formalismo gutxiago egotea eskatu zuten. Gainera, EBko zinegotziak lehendakari aldaketa eskatu zuten.

Alkateak batzardeko lehendakaria demokratikoki erabakia zela gogoratu zuen eta udalbatzara bukatutzat eman zuen.

HAUTESKUNDEAK

Etorbinek

hautesle-errodan izena emateko epea luzatu da

Europako estatuetako batean, Norvegia, Zeelanda Berria, Txilen, Kolonbian, Ekuadorren, Paraguayan edo Perun jaio eta Estatuan bizi diren atzeritarrek hautesle-errola bulegoak eskatzen dituen baldintzak betez gero, maiatzaren 22an egingo diren hauteskundeetan bozkatu ahal izango dute.

Horretarako, etorkinek hautesle-errodan izena emateko epea luzatu da, orain urtarrilaren 25era arte dute interesatuek agiriak aurkezteko. •

LANAK

Hipodromo etorbideko bide bat itxiko da

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi du, Okendo Plaza berrurbanizatze eta Gelto-ki Kalea oinezko bihurtzeko obrak direla eta, urtarrilaren 17ko astelehenean aurrera, Hipodromo Etorbidean bide-lerro bat itxi egingo dela ibilgailuentzat eta zirkulazioa zuzentzeko semaforoak jarriko direla.

Lasarte-Oriako Udalak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

Emakumeen kirola sustatzeko hitzarmenak sinatu ziren

Kirol federatuen emakumeen parte-hartzea bultzatu asmoz, ostiralean, urtarrilaren 14an, lankidetzako hitzarmena sinatu zuten Lasarte-Oriako Udalak Lasarte-Oria Kirol Elkarteak, Ostadar Kirol Fundazioak eta Buruntzaldea Igeriketa eta Kirol Taldeak.

Sinatzeko ekitaldian Jesus Zaballos, Lasarte-Oriako alkatea; Fernando Eskoriaza, Udaleko Kirolen Batzardeko lehendakaria; Jesus Diez, Lasarte-Oria Kirol Elkartearen lehendakaria eta Kontxi Sarriegi, Ostadar K.F.ren ordezkarria egon ziren. Puy Solano, Buruntzaldea Igeriketa eta Kirol Taldearen ordezkarria ezin izan zen bertan egon.

Laguntza

Emakumeek kirol federatuen parte-hartze eskasa dutela ikusirik, Lasarte-Oriako Uda-

lak laguntza-lerro bat gartzea erabaki zuen kirol federatuko jarduerak egiteko emakumeak positiboki diskriminatu daitezkeen.

Sustatze-lan hau herriko kirol-elkarteekin lankidetzako hitzarmenak sinatzu gauzatzen da.

Hitzarmenak

Hitzarmen horietan, plan honetan finkatutako helburua betetzeko alderdiek bere gain hartzen dituzten betebeharrak jasotzen dira. Laguntza-lerro honek, aurtun, 13.446,22 euroko dotazioa du.

Lasarte-Oriako Udalak Lasarte-Oriako kirol-elkartei ematen dizkien laguntzen helburua kirol-jarduera federatuen, kasu honetan atletismoan, judoan, futbolean eta igeriketan emakumeen parte-hartzea bultzatuko duten egiturak sustatzea da,



K. Sarriegi Ostadarreko ordezkarria, alkatea, J. Diaz LOKE lehendakaria eta F. Eskoriaza Kirolen Batzardeko lehendakaria sinaketan.

beti ere, egituren proiektzioa eta interesa bat baldin badator Lasarte-Oriako Udalaren kirol-politikarekin.

Kontuan izan behar da, hitzarmen hauen azken hel-

burua autonomoki bere jarduerak garatzeko gaitasuna duten eta kirol eta finantza alorrean orekarako bermea duten kirol-egiturak bultzatzea dela.

Horregatik, sinatu ziren hitzarmenak urtebeteko iraupena izango dute, hau da, laguntza hauek ez dute jarraipen-espiriturik, haien iraupenmuga 2011 urtean ezarri da. •

Zero Settek 24 urte bete ditu

■ Urtarrilaren 10ean, Antonio Mercero sortutako akordei orkestrak 24 urte bete zituen

Urte asko dira Zero Sette akordei orkestra eratu zenetik, hain zuzen ere 24 urte. Pasa den, astelehenean, urtarrilaren 10ean, herriko orkestraren urtebetetzea izan zen. Sortu zenetik ia mende laurdena betetzera doazenean beraiekin egon gara aurtengo proiektuak eta mende laurdenaren prestakuntzat zer moduz doazen jakiteko.

Zero Sette akordei orkestrak lortu duen arrakasta ukaezina da. 24 urte dira jada jaiotzen, eta harez geroztik lurralde ugarian egon da, nazionalki eta internazionalki errekonozimendua eskuratu duen orkestra dugu.

Elias Goikouriaren gidapean 19 akordei jotzaile daude egun Zero Sette orkestran. Talde honi esker akordeiaren munduarengan gehiago hurbildu dira lasarteoritarak. Are eta gehiago herrian akordei jaialdia antolatzeari ekin ziotenetik, 2010. urtean VII. edizioaz

gozatzeko aukera izan zen. Jaialdi hau urtetik urtera jende gehiago erakartzea lortu du.

Urteko proiektuak

Lasarte-Oriak aurreko herri bezala eratu zenaren 25. urteurrena ospatuko du eta honen ospakizuneko prestakuntzan dabil murgildua Zero Sette orkestra. Honetaz gain, proiektu ugari ditu buruan, baina oraindik konfirmatu gabek.

Taldearen 25. urteurrena

Urte bete geratzen zaienean mende laurdena betetzeko, ospakizunen antolakuntzara-



Urtero antolatzen duen akordei jaialdiak gero eta jende gehiago erakartzen du Manuel Lekuona kultur etxera

ko taldea eratu dago "orain dela sei hilabete sortu genuen eta bertan gaudenok ilusioz beterik gaude ekitaldi politik antolatzeko asmoarekin" azaldu digu Elias Goikouriak,

orkestrako zuzendariak. Idei ugari dituzte buruan "baina arazo handiena ekonomikoa dugu" gaineratu du. Hala ere, beraien 25. urteurrenean helburu zehatza izango dute

"akordei orkestra herriak hurbiletik ezagutzeko aukera izatea". Eta horretako kalera aterako dute "instrumentu familiarra bihurtu nahi dugu". Zorionak Zero Sette!! •



Martxoaren bukaeran amaitzen da lehiaketan izena emateko epea.

Narrazio erotikoen lehiaketa

Berribeiteko Udalak Narrazio erotikoen lehiaketa jarri du abian eta martxoaren 31ren 14:00etan amaituko da lana bidaltzeko aukera. Idatziak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu daitezke.

Kontakizunaren estiloa librea izango da, eta literatura erotikotzat hartuak izateko baldintza bakarra kalitatea izango da. Gehienez lan bat aurkeztu ahal izango da idazle eta hizkuntza bakoitzeko. Lanak aurretik argitaratu gabek eta beste lehiaketetan saritu gabek izan beharko dira. 15.000 karaktere, espa-

zioak barne izan ahaliko dute gehienez idazlanak.

Izengoitiaren izenpeturik aurkeztu beharko dira eta hiru kopia, bi ale paperean eta beste bat CDan. Hauek kartazal itxian joango dira eta kanpoaldean "Narrazio Erotikoen Lehiaketa. Berribeiteko Udala. Kategoria orokorra" erreferentzia jarri. Barruan, eskuhartzailearen izen-abizenak, izengogitia, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa jarri beharko dira.

Balorazioak

Berribeiteko Udalak izendatuko du epaimahaia Udaleko

zinegotzi eta gaian jaiaren jantziak dirne pertsonekin. Hauen erabakia 2011ko abenduaren 31 baino lehen emango da ezagutzera.

Berribeiteko Udalak irabazle lanak argitaratu ahaliko dira, egileak berak ere berdina egiteko aukera izango du. Eta azken honen baimena izanez gero, Udala Liburutegiak erakusgai jarriko dira jendeak irakur dezan.

Lanak Udaletxe plaza, 1 31195-Berribeite(Nafarroa) bidali beharko dira.

Informazio gehiago cultura@berribeite.es helbidean eskuratu daitezke. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

TXEFO, ARTEA TALERRA izeneko erakusketa ikusgai. Txefo Mendezzen argazkilararen lanak daude ikusgai. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Ostirala, 21

Berto-soaia

LASARTE-ORIAKO BERTSO ESKOLAREN DESAFIOA. Jalgi kafe-antzokian, 22:30etan, EUSKARAZ.

Igandea, 23

Zinea

LA TRAVESÍA DEL VIAJERO DEL ALBA filma eskainiko dute haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

GAZTELANIAZ



Guindalera taldearen
La ultima cena antzezlan

LA ULTIMA CENA antzerkia eskainiko du Guindalera taldeak. Ignacio Amestoyren lana taularatu du taldeak Juan Pastor zuzendariaren gidaritzapean.

60 urterekin, Iñigok bere burua intelektual konprometitzat du, baina hainbat utopia zahar lortzeko ahaleginetan kale egin du. Bere semea, borroka armatuaren kide, bisita egiten dio.

LARUNBATA, 22

MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 20:00ETAN.
SARRERA 10 EURO, GAZTELANIAZ

Osteguna, 27

Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30etan. GAZTELANIAZ



Ostirala, 28

Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia. Talde honek nagusiki rocka lantzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan. EUSKARAZ



Larunbata, 29

Antzerkia

NORK IKUSI DU DULTZINEA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatroko lagunek. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. EUSKARAZ



Igandea, 30

Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE filma eskainiko dute haurrentzat. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.



Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa.

Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Elikagaien bilketa Sahararen alde

Lasarte-Oriako Sahar Harriaren Aldeko Elkarteko kideek Sahararen Aldeko Euskal Karabanaarako elikagai bilketari ekin dio dagoeneko. Bilketaren azken eguna hilaren 29an izango da Urbil merkatal gunean.

Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamenduetara eramanez nahi ditu: arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak.

Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko ikastetxeetan eta supermerkatuetan edukiontzia aurkituko dituzue.

Emakumeen Zentro Zibikoko ikastaroak

Emakumeen Zentro Zibikoko urtarilla eta apirila bitartean eskainiko dituen ikastaroen izena emateko epea ireki du. Hainbat ikastaro eta ekintza eskaintzen ditu Zentroak: batuka, eskulanak, frantsesa, mantentze gimnasia, pilates, kantua edo tai-chi eta inauteriak gertu ditugunez, konparatza prestatzea.

Interesa dutenek urtarillaren 21a arte dute ikastaroetako informazioa eskatu eta inskripzioa egiteko goizez, 9:30etik 13:30era eta arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara.

Arratiako Jotien ikastaroa

Erketz Dantzaren Lagunak taldeak, urtarillaren hasita, Arratiako Jotien ikastaroa antolatzen du. Ikasi nahi duen oro dago gonbidatuta, azaltzea besterik ez du, asteartero 20:00etatik 21:15era Zumaburuko eskolara. Animatu zaitzete!

Alboka txiki abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasiko ditu, urtarillaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegu Zumaburuko eliza azpiko lokalean egiten da, astelehenera 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta oste-

gunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, bi erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat eta MP3 bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Bai Euskal Herriari taldeko loteria

Bai Euskal Herriari ekimenaren zozketa nazionalako zenbaki saritua 29.193 izan da. Ordezko zenbakia 18.601, eta 2. ordezko zenbakia 20.644.

LOKE-ko saskiak

LOKE-k Eguberriko Loteriare-

kin zozketatzen zituen saskien zenbaki irabazleak honako hauek dira: Aginaga sagardotegian lau pertsonentzako afaria, 9.250 zenbakia (mahai teniseko atalak saldua), eta Txartel txokon lau afariak, 0.147 zenbakiari dagozkio (atletismoko sailak saldua). Sarituak Manuel Morales-ekin harremanetan jarri behar dira, 656 715 700 zenbakira deituz.

Ostadar Atletismo

Korrikarako zaletasuna baduzu gerturatu zaitzete Ostadarko bulegora. Ekipazio berria egitera goaz eta herriko gizon-emakume guztioi luzatu nahi dizuegu Lasarteko korrikalari taldeko kide izateko aukera.

Informazio gehiago Ostadarko bulegoan, geltoki kalea 25ean, edo 943360433 telefonon.

Komentatu zure lagunekin eta animatu zaitzete!! Epea: urtarillak 31 arte.

Ostadar Loteria

Ostadarrek urtero "El Niño"ko loteriaren batera nekazal etxe

batean bi pertsonentzako asteberua pasa zozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazlea 70.013 izan da. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko. Tel: 943360433.

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 koordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen lagutzeko bideratuko da.

Kukukaren egutegia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren aldeko egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbelar belar dendan, Urruzola mertzerian eta Basaundiko Denda-Berrin.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Lasarte-Oria eta Zarautz arteko desafioa bertsoan

- Bi bertso eskolak Jalgin neurtuko dituzte indarrak ostiralean 22:30ean
- Gipuzkoako txapelketa hasi dira prestatzen herriko bertsolariak
- Karlos Aizpurua, Andoni Egaña eta Imanol Kamio datoz erakustera

Lasarte-Oriako bertso eskola hasi da maiatzen hasiko den Gipuzkoako txapelketa prestatzen. Batetik parte hartuko duten herriko bertsolarietara zuzendutako ikastaroa antolatuta du bertso eskolak, eta bestetik hilero beste bertso eskola bateko kideen aurka neurtuko dituzte indarrak. Lehenengo desafioa Zarauzko bertso eskolari bota dio Lasarte-Oriak eta ostiralean 22:30ean burutuko da Jalgi tabernan.

JON ALTUNA

Takun elkarteko bertso eskolak sendo heldu dio Gipuzkoako bertsolarien txapelketaren prestatuari. Maiatzean hasiko dira kanporaketak eta ordura bitartean, teoria eta praktika, biak landuko dituzte parte hartuko duten herriko bertsolariak.

Batetik beraiantzat espresuki antolatutako ikastaroa hasi du bertso eskolak aurreko astean. Karlos Aizpurua, Andoni Egaña eta Imanol Kamio izango dira irakasleak eta bestetik gutxienez lau saio egingo dituzte Gipuzkoako beste bertso eskola batzuekin hurrengo lau hilabetetan.

Hilero beste herri bati desafioa botatzeko asmoa du bertso eskolak eta lehenengo neurketa-saioa ostiral honetan gaueko 22:30ean burutuko dute Jalgi tabernan Zarauzko Motxian bertso eskolako ordezkarien aurka.

Lasarte-Oriako ordezkariak Beñat Iguaran, Unai Muñoa eta Zigor Iriondo izango dira eta Imanol Lizardik jarriko ditu gaiak.



Aurreko ostegunean hasi zuten herriko bertsolariak Gipuzkoako Txapelketaren prestatuntza Karlos Aizpuruarekin(erdian).

Bestalde, herriko bertsolariak aurreko astean hasi zuten Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko duten bertsolariak prestatuta ikastaroa.

Ikastaro sakona

Urtarrilaren 13an hasi eta maiatzean txapelketa hasi bitartean 12 saio egingo dituzte, zortzi Karlos Aizpurua, hainbat urtetan Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako eskoletako irakasle izan denekin, bi Andoni Egañarekin, hauetako bat nahi duen orrentzat irekia, eta beste bi doinuak eta kantaera lantzeko Imanol Kamio musikariarekin.

Lasarte-Oriako bertso eskolara etortzen diren zortzi

lagun ari dira txapelketa prestatzen; Zigor Iriondo, Andoni Otamendi, Unai Muñoa eta Ane Labaka herritarra, eta baita beste lau bertsolari gazte ere: aspalditik bertso eskolara datorren Beñat Iguaran Amasakoa, eta Hernanikoan dabilzan Asier Azpiroz zubietarra, Unai Gaztelumendi añogatarra, eta Oier Iurrumendi hernaniarra.

Zortziek gogoz ekin zioten lanari aurreko ostegunean Karlos Aizpuruarekin. Hainbat urtetan emaitza onekin iparraldeko bertsolarien maisu izan den Aizpurua oiartzuararekin bertsoak sortzeko elementu guztien azterketa egingo dute zortzi astetan.

Hilero bi aldiz elkartuko dira ostegunetan arratsaldeko 18:00etan. Saio bakoitzak bizpahiru ordu iraungo du.

Andoni Egaña irakasle

Beste bina saio Andoni Egaña bertsolariarekin, hauetako bat nahi duen edonorentzat irekia, eta Imanol Kamio musikariarekin egingo dituzte.

Doinuak aukeraketa eta kantaera edo bertso gintzaren beste hainbat ertz lantzea ere interesgarria iruditzen zaio Ttakuneko bertso eskolari eta horregatik burutuko dira saio osagarri hauek.

Hainbat urtetan txapelketan kontrariorik izan ez duen Egaña zarautzarrak asko du erakusteko eta bere mintzaldi-erakustaldietako bat nahi duenarentzat irekia izango da, hau da, eskola bat Gipuzkoako Txapelketan aterako diren bertsolariarentzat prestatuko du eta bestea publikoa izango da. •

Teoria eta praktika landuko dituzte bertsolariak: batetik prestatuta ikastaroa dute besteak beste Andoni Egañarekin eta bestetik neurketak Gipuzkoako beste bertso eskola batzuekin.

amaraun ludoteka

! Eskulanak, lorezaintza, txotxongiloak, mozorroak, ipuin kontaketak, pijama festa...

GUAY pasako dugu!

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behea)
943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

